

*Curiosity* ibilgailuak 2021eko martxoaren 26an ateratako selfiea. Robotaren ezker aldean, arrokan egin duen zulo bat ikus daiteke (ongi begiratuta). ARG.: NASA/JPL-Caltech/MSSS.

# Hamaika begi Marten

Begi berriak iritsi dira aurten Martera. Otsai-lean iritsi ziren *Al Amal* orbitatzaile arabiarrak eta *Tianwen-1* txinatarrak. Lehendik baziren beste bost orbitatzaile planeta gorriari begira: hiru estatubatuar, bi europar eta indiar bat.

*Perseverance* ibilgailu estatubatuarrek ere otsai-lean lur hartu zuen Marten, eta apirilean askatu





zuen berarekin zeraman *Ingenuity* helikopteroa. Han zeuden, lehenagotik, *Curiosity* ibilgailuak eta *Insight* zunda, biak estatubatuarrek. Eta, azkenik, maiatzean lur hartu zuen *Tianwen-1* orbitatzailea-ekin batera iritsitako *Zhurong* ibilgailuak.

1960ko hamarkadan hasita, ia 50 misio bidali dira Martera, edo pasa dira handik. Batzuk ez ziren ongi


atera, beste batzuek begiratu bat eman eta beren bideari jarraitu zioten, eta beste batzuek, lana ongi egin ondoren, begiak itxi zituzten. Goian aipatutakoek begiak zabalik dituzte. Denen artean, irudi eder asko utzi dizkigute. Hemen bildu ditugu haletako batzuk.






NASaren Hirise kamerak 2008an Xanthe Terra eremuan (Ipar hemisferioan) hartutako irudia. Duna txikiak ikusten dira. ARG.: NASA/JPL/UArizona.











2001ean, NASAREN Mars Global Surveyor orbitatzaileak irudi hauek hartu zituen, hilabeteko aldearekin. Hegoaldean hasitako hauts-ekaitz batek planeta osoa estali zuen.  
ARG.: NASA/JPL/MSSS.









Europako Espazio Agentziaren Mars Express misioak argazki hau atera zion Korolev kraterrari, 2018an. Ipar polotik gertu dago, laurogei kilometrotik gora ditu, eta ur-izotzez betea dago. ARG.: ESA/DLR/FU Berlin.









*Curiosity* ibilgailuak 2015ean Mount Sharp eremuan ateratako argazkia. Mineralogia-aniztasun handiko eremua da. Aurrealdean, hematitez betetako gandor bat ikusten da; atzean, buztin-mineraletan aberatsa den lautada izurtua eta sulfato-mineral ugari duten muino biribilduak. Horiek guztiak osatzeko, inoiz ura egon behar izan zuen hor. ARG.: JPL-Caltech/MSSS/NASA.









*Perseverance*ek 2021eko apirilaren  
6an ateratako selfiea, ondoan  
*Ingenuity* helikopteroa duela.  
ARG.: NASA/JPL-Caltech/MSSS.



